

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak 2017

Aldudarrak Batasuna: 1986ko lehen bideokameratik, herri telebistara

Ihintza Bidart. Aldudarrak Batasuna elkartea

Aldudarrak bideo – kanaldude : urratsez urrats, 20 urteak ospatu !

1980 hamarkadan Euskal Irratiak sortzen dira

Gure Irratia Lapurdin 81 bukaeran,

Irulegiko Irratia Baxenafarroan

Xiberoko Botza Xiberoan 1982 urte hasieran

Mikel Erramouspe Aldudarra Irulegiko Irratiaren sortzaileetan da. Irratia abiatu ondoan, berak pentsatzen du soinuari irudia lotu behar zaiola eta lehen “caméscope bat erosten du 1987ko ekainean : Sony V8 formatoa”, familiako baita Aldudeko ibarreko gertakarien oroitzapenak atxikitzeko.

1988an, historia erakasle eta zuzendari zela Baigorriko kolegio pribatua,

bideo **formakuntza** batean parte hartzen du.

4 urtez segidan, erakaskuntza katolikoak Bordelen proposatu formakuntzetan parte hartzen du

Mikelek filmatzen eta muntatzen ikasteko.

1989an, Baionako Euskal Erakustokian langile zen **Mano Curutcharry** Baigorriara ikastetxetan ibiltzen zen historiaren inguruko animazio bereziak proposatuz. **Frantses iraultzaren 200.**

urtemuga zela, Manok Baigorriko bi kolegioeri proposatzen deie zerbait egitea **Harispe**

marexalaz. Kolegio publikoak erakusketa bat antolatu zuen. Kolegio pribatuak aldiz, Mikel

Erramousperen inguruan, **dokumental bat egin zuen frantsesez “Sur les pas du Maréchal**

Harispe” - Ikasleak eragile, hauen artean garai hartan 4.ean zen Eki Pagoaga. 40 minuta inguruko

dokumental honen bidez saiatu ziren jakiten zer gelditzen Baigorriaren memorian Harispe

Marexalaz. Jo Maris musika erakasleak lagundurik, dokumental honetan musikak bere garantzia

izan zuen.

1990ean, ELB, Euskal Herriko Laborarien sindikatak bere urteko besta Alduden antolatzea proposatzen du. Ibarreko laborariak biltzen dira Mikel Erramousperen laguntzarekin **bideo**

dokumentu bat egiteko mendi eskualdeko laborantza presentatzeko. Zenbait hilabetez,

laborariak biltzen dira filmaren pentsatzeko : ze irudi, zein elgarrizketa, filmaketen antolaketa

etabar. **40 minuta inguruko filma aurkeztua da** ELBren bestan – hau izan da **lehen bideoa parte**

hartzaille moduan egina. Herritarrak ohartzen dira ze indar duen irudiak jendeak mintzaarazten

direlarik.

ELBren bestan hedatu dokumentalak eragin handia ukan zuen, filmak egiteko zer nahi galde nundik nahitik metatzen dira. **Mikel gainditua da**. Ordian **erabakitzen du beste batzuen formatzea**, Mikel bera jartzen da formatzaile alkiari. ADEPFO egituraren bidez diruztaturik **29 pertsonen egiten dute lehen formakuntza hau**. Haueri esker lehen laguntzaile zerrenda bat osatzen da, **filmaketa batzu egiten dira** (horien artean, Biduztarren biltzarrean Mattin Irigoien eta lagunek antolatu kabalkadarena 1992an - hau filmatzen da **multikamera moduan bainan régiaririk gabe** - orduak eta orduak emanen dituzte ikusgarria muntatzen...)

Lanetik kanpoko orduetan filmaketak eta muntaketak segitzen dituela, Mikelek bideogintza saileko **aldizkari batean irakurtzen** du Limousin eskualdean badela lekuko telebista bat, jada hamar urte hauetan ari den. Mikel harremanetan jartzen da **Télé Millevaches telebistarekin**. Hauek hilabetero beren eskualdean egin erreportaia eta elgarrizketekin **magasin bat** egiten dute, **VHS** kazetetan grabatzen, **kopiak** egiten eta banatzen jendea ibiltzen den **leku publikoetan** : eskola, liburutegi, ostatu, xahar etxe etabar... Berantago, 1995ean, oporraldi batez baliaturik, Mikel joanen da hauen ikustera.

90 hamarkadan ere sortzen dira harremanak **Aldudeko ibarra** eta **Baionako Cassin ikastetxean egiten den BTS audiovisuel bideogintza sailaren artean**. BTSeoak urte guziz heldu dira Aldudera **aste batez telebista esperientziak egitera**. “**Canaldudes**” deitzen dute beren saioa. Lekuko gaietaz egiten dituzte erreportaiak, plato batzu antolatzen gomitekin. Emankizunak **frantsesez** egiten dituzte, **VHS** kazeta batzuetan grabatzen eta ibarreko **biztanleeri** erakustera emaiten.

1991n, Sapede suprefetak jakinarazten du Euskal Herri barnekaldearen bisita egingen duela eta karia hortara Aldudera etorriko dela. Peio Setoain, Aldudeko auzapezak Mikel Erramousperi galdegiten dio **Aldudarrak batasuna eta bideogintzan aipatzen** den proiektua esplikatzea suprefetari. Mikelek laborantzari buruzko **filma erakusten dio** Aldudeko zinema gela xaharrean. Suprefeta **harritua** gelditzen da eta Mikeli erraiten dio bideogintza sailean proiektu bat baldin bada ibarrean, **diru laguntza eskaera bati baiezkoa emanen diola estadoak**. **Aldudarrak batasunak (parropiaren aldeko elkarte) proiektu bat idazten du, orduko 50 000 libera diru laguntza galdeginez estadoari - Suprefetaren laguntzarekin, 10 aldiz gehiago ixuriak izanen dira elkarteari bideogintzako inbertsioa egiteko**.

91-93 urteetan Kristof Ayez Saratarra eta Ximun Carrere Lekuindarra bideogintza saileko formakuntzan dira. Mikel Erramouspek hauekin aipatzen du Aldudeko ibarrean bideogintza sailaren indartzeko xedea, batez ere **Estadotik eskuratu diru laguntzarekin materialaren erostea**. (Kristof eta Ximunez bestalde, Philippe Aldaco, Kristof Luberriaga ere lekuko gazteek bideogintzako formakuntzan sartzen dira 1992an...).

Gertakarien filmaketen ondoan, **lehen filma eskaera** izanen da **Itsasuko Xapata** elkartearentzat, Itsasuko gereziatz : hau da Kristofek egin lehen filma egituratua, bururaino eremana eta **fakturatua**.

Gertakarien filmaketak eta lehen eskaera hau bukatzean, Mikel Erramouspe segur da bideogintzan hartu bidea segitu beharrekoa dela... baina horrek ez du kentzen **zailatasunak direla dirua sarrarazteko**. Eredu ekonomikorik ez da. Nahiz gazteak bideogintzan aritzeaz interesatuak, bortxatuak dira kanpoan lanean aritzea irabazbide bat segurtatzeko. **Kristof, Ximun eta besteak Ernest Hirigoyen soinu egilearekin ariko dira langile**.

1996an Aldudarrak batasunak lehen ordenagailua erosten du administrazio saila segitzeko. Internetek lehen lehioak irekitzen ditu, emeki emeki abiatzen da...

Aldudarrak batasunak **proiektu kudeantzarri buruzko formakuntza** bat muntatzen du Lan Berri enpresarekin (Peio Bellan). Urte batez, taldeak ikasten du **fitxak egiten proiektua**, proiektuen segipena lantzen, bukaerako balorapen eta bilanak egiten.

Peio Bellanen familiakoa izanez **Nicole Alix errealizatzailea** Aldudera ekarrazten du eta **abiatzen da lekuko telebistaren sortzeko proiektua**, Télé Millevaches telebistaren adibidean oinarrituz.

1997an, Aldudarrak Bideo elkarte sortzen da – Aldudarrak batasunaren ondoan, bideogintza saila aparte aitzinatzeke. BTS sailak “**Canaldudes**” hitza baliaturik, hau euskaratzen da eta euskarazko telebista parte hartzailea eremane duen **Kanaldude** sortzen da.

Nicolen laguntzarekin taldeak lantzen du emankizun bat parte hartzaileak egiteko modua. **Lehen emanaldia egiten da 1998an Aldudeko feiraren kariatara**. Emankizunaren beztitzeak egiten dira Debru'art elkartearen laguntzarekin (Christian Aduritz, Marko Amparch) – lehen emankizun hunen muntaketarentzat, BTSaren partaidetza beharrezkoa da. **Partaidetza izan zen ere France 3 telebistarekin azpituaren egiteko** (tresna eta teknika bereziak).

Oroitu behar da garai horretan ez zela ordenagailurik.

Nicole Alix-i esker taldeak jakiten du **Frantzia mailan lekuko telebisten sare bat badela** : **FVDPQ** (Fédération des Vidéos de Pays et de Quartiers), hauen kide da Télé Millevaches telebista eta hauen hari beretik, **Aldudeko ibarrean lehen magasinak « Elebista » deitua grabatzen da VHS kazeta batean** – Hor sortzen dira ere **hizkuntzen arteko lehen eztabadak** eta erabakitzen da bi bertsioen berextea, kazeta bat euskarazko bertsioarekin, beste bat frantses bertsioarekin.

Aldudarrak bideok 1998an Lekornekoko kabalkada filmatzen du – 2500 liberaren truk. Lehen aldia da lana ordaindua izateko sendimendua gozatzen dela.

Aldiz 1999an, Mikel Erramouspek bere aldetik lehen dokumental bat ekoizten du : “**Sor lekua utziz geroz**” - bere aitak gazte denboran Ameriketara joan zen bidaiari berriz eginez, oroitzapenak bilduz - Nicole Alix-en laguntzarekin idatzi filma, berak filmaturik eta muntaturik. Dokumental hau Aldudeko zinegelan hedatua izan zen behin baino gehiagotan, arrakasta handia bilduz.

2000. urteko urrian : Aldudeko ibarraren ate irekitzeak / hiru egunez magasin bat egunean egiten da, VHS kazeta batean grabatuak dira eta Aldudeko Okolo mendixkan ezarria izan den antena bati esker hedatzen da (Pierrot Oteizaren bidez estatotik baimen bat eskuratu ondoan) = LEHEN TELEBISTA HEDAPENA

Hiru egunen buruan, feira bururatzen ari zela, **lehen emankizuna egiten da ZUZENEAN Aldudeko TDFn ttattolaren ginetik**

Emankizuna **soinurik gabe** hedatzen da. Berehala oharturik, **kazeta berriz biltzen da eta segidan emankizuna berriz igortzen soinuarekin**. Ohargarri da TDFek zuela elektrizitatea ordaindu, jakin gabe (petite histoire...)

Aldiz Nicole Alix kezu agertzen da... federakuntzak egiten dituen magazinetan ez baita publizitaterik sartzen – lehen emanaldi honentzat, Aldudarrak Bideok publizitatea sartu zuen.

2002 : Aldudetik Garazira, Irulegiko Irratiko etxearen garagean instalatzen da Aldudarrak bideo telebistako bigarren hedapen luzeagoa prestatzeko. Mailegu bat negoziatzen da materiala erosteko eta urte guzian hiru asteko telebista hedapena prestatzen da elkarteko langile eta laguntzaileen artean.

Hedapena bete betean zelarik, **jakiten da materialaren erosteko mailegua ez dela onartua...** espermentazioaren ondotik materiala itzuli behar da – ainitz diru emaiten da materialaren alokatzearentzat eta horrek **elkartearen egoera zalantzan emaiten du...** urte bat baino gehiago emanen da horri buru emaiten.

2002ko espermentazio honentzat – Elez ele emanaldia sortzen da :

- 1- 8.probintzia Mikel Erramouspek eremanik
- 2- Bertsolaritzaz David Airek eremanik
- 3- Etxebizitzaz = Mirentxu Lacorekin
- 4 – Musikagintzaz – Oihana Daguerekin
- 5- Kabalen baskatzeaz – Pantxika Maitiarekin ... eta beste gai batzu.

Urtez urte bi aktibitate mota segitu dira :

- eskaeretan oinarritutako bideoak
- kanaldude telebista partehartzailea

Gaur egun artxiiboak gure egoitzan dira

Talde batek lantzen ditu, sailkatzen, izendatzen

Idea da dena interneten ezartzea baina lan handia da

Baina ere INA (institut national des archives)-en gordetzea